

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Araia "Aratz" izeneko VI-10100 ehiza esparrua berritzeko eta legeztatzeko lurzatiak lagatzea

Asparreneko Udalak, 2020ko uztailaren 9an egindako ohiko bilkuran, VI-10.100 matrikula duen "Aratz" izeneko ehiza esparru pribatua berritzea eta legeztatzea erabaki zuen. Esparru horren titularra Asparreneko Udala da, jabeen elkartearen ordezkari gisa.

Kontuan izanik aipatutako esparruaren berritzean barne hartuko liritekeela esparru horretarako ezarritako inguruaren barruan dauden lurzati guztiak, titulartasun pribatukoak zein publikokoak, baita Asparreneko Udalaren jabetzakoa den 311 zenbakiko Onura Publikoko Mendia (Kukuma, Iturrioz eta Aiondo) ere, iragarki honen bidez inguruabar hori jasotzen da, eraginpeko lurzati jabeek Euskal Herriko Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legearen 21. artikuluan aipatzen den baimena eman ahal izan dezaten.

Ulertuko da isilbidezko baimena eman dutela iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, hamabost egun balioduneko epean, kontrakoa adierazteko idazkirik aurkezten ez dutenek Asparreneko udaletxean. Horiek horrela, udalak baimena izango du ezarritako epean desadostasunik azaldu ez duten jabeen lurzati edo finka guztiak ehiza esparruan sartzeko.

Ehiza esparru horri buruzko kartografia espedientean agertzen da, eta interesa duten guztiak eskura dezakete udal idazkaritzan adierazitako epean, 09:00etatik 14:00etara.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Araia, 2020ko uztailaren 9a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ